

**BIDEZIDOR KIROLEKO  
ARGAZKI ETA  
KRONIKATXOAK 8**

**Beasain-Ordizia-Lazkao-Ataun (San Martin-San Gregorio-San Martin) (2018-12-07)**

**Barandiaran, On Joxe Miel  
txapela eta sotana,  
Euskal Herriak eman al dizu  
merezi zenuen fama?  
Helduen Hitzako ibiltariok  
etorririk zuregana,  
Sara etxean aritu gara  
goraipatzen zure lana.**

**(2017-06-23)**

**Begi aurrean ikus daiteke  
argi Txindoki mendia,  
eta ondoan Ramonen ustez  
bazegoen sumendia.  
Goiko aldean ez ote dago  
krater baten irudia?  
baina hementxe tortilla jaten  
lasai Koro Garmendia.**

**(2018-03-09)**

**Beasainera heldutakoan  
autobus txikiegia!  
gure tamaina ikusi eta  
ez zen sartuko erdia.  
Pelotoiaren aurre-aurrean  
jarri zitzaigun erbia,  
marka guztiak hausteko asmoz  
Mariaje gidaria.**

**(2018-12-07)**

**San Gergoriok badu basoa  
San Martinera doana,  
hortik primeran ikus daiteke  
eder askoa harana.  
Beste aldean Jentil Baratza  
hurbildu da guregana,  
edertasuna primerakoa  
ez al da egia Ana?**

**(2018-12-07)**



**On Joxe Miel Barandiaranen Sara etxean**



**Ataungo San Martin auzoan, talde osoaren argazkia**



**On Joxe Miel Barandiaranen Sara etxea**



**Ibilaldiko une lasai bat**

**Aretxabaleta-Urkulu-Aozaratza-Aretxabaleta (2018-12-14)**

<p><b>Arizmendarrietarena jakin behar du munduak, gizon xeble aurrerakoia zela dio Aizpuruak. Oso egokiak ziren bost gizon bazeuzkan aukeratuak, kooperatiben sortzaile honek garbi zituen kontuak.</b></p>	<p><b>Motozikletaz joaten omen elizatik lantokira, azken honetan amaitu eta abiatu zen tokira. Aberastasun izugarria ekarri zuen herrira, hau bezalako gizon handiak askoz gehiago balira!</b></p>
---	--

**(2018-06-12)**

<p><b>Donostiatik atera eta goazen leku berora, haize-urite nekagarria bota dezagun kanpora. Ustekabea hara heltzean eguzkiaren ondora, argazkietan hurbil zaitezke guk nahi genuen girora, plazer handia izango dugu ezagutzen Otalora.</b></p>	<p><b>Lankide-Kutxaren jauregia gaur bera baita jabea, aberats batek eros dezake pobre batek ez, ordea. Otalorako behatokitik paisaia berde-berdea, hau ikusita nori ez zaio bertan isuri lerdea?</b></p>
--	---

**(2018-06-12)**



**Urkulu urtegia eta garaiko bere landaredia**



**Euri piska bat egin zuen, baina ez iragarritakoa**



**Bertako soro eta basoak, ederrak benetan!**

<p><b>Batzordekook ba omen gaizki egitearen lagunak, honelakorik ez dute esaten direnak arduradunak. Esaidazu non zozkatzen diren halako bizilagunak?, bat edo batek nahasten ditu ostiral eta ostegunak.</b></p>	<p><b>Seiak aldera balkoira irten a zer nolako euri-jasa!, Deba garaira gaur joatea ez da batere erraza. Hala eta guztiz mendizaleok gogoak hor garamatza, ibilaldira kale egitea ez zaigu burutik pasa.</b></p>	<p><b>Laurogeita hirugarrenean eraiki zen urtegia, leku bareak lasaitzen gaitu horixe bada egia. Ibiltariak une honetan erne jarri du begia, bere aurrean azaldu baita Otalora jauregia.</b></p>
---	--	--

(2018-12-14)



**Otalora jauregiaren aurrean Juan Inazioren azalpenak entzuten**

**Donostiako zenbait aldetan zehar (2018-12-21)**



**Talde osoa (argazkilaria izan ezik) Haizearen Orraziaren lekuan**

**Baserritarrak hirira jaitsi  
hala omen historia,  
zorrak kitatu nagusi jauna!  
bazeukaten memoria.  
Jende xumeak beti izan du  
ekonomi eroria,  
egun honetan jaten baitzuten  
txorizo eta ogia.**

**Garai haietan gehienak maizter  
hirikoa aberatsa,  
traje ederra jantziko zuen  
pobrea, berriz, narrasa.  
Gaur zorionez baserritarrek  
harturik dute arnasa,  
eta baztertu behin (e)ta betiko  
halako bizitza latza.**

**(2018-12-21)**





**Lourdes Txikin, Sor Pakik agindutako Aita Gurea prestatzen**



**Haizearen Orrazitik harturiko argazkia**

**Oiartzun.Liztorreta-Santiagomendi-Astigarraga (2019-01-11)**

<p><b>Liztorretako bide honetan a zer nolako lokatza!, mendizaleoi erruki gabe zipriztindu zaigu galtza. Horrez gainera hor Mugaritzen bazegoen nahiko saltsa, horretantxe du Belenek hartu sudurrean kolpe latza.</b></p>	<p><b>Zero azpitik gradu bat dugu eta botak lokatzetan, nola garbitu zikindu dena? Mugaritzen belarretan! Baserritarrak ikusi balu legiguke errietan, bost axola du pasa baitugu egun ederra benetan.</b></p>	<p><b>Alderdi honek, bakarti samar, samur dezake bihotza, hemen besterik ez da entzuten ur eta hostoen hotsa. Izozturiko larre hauetan antxume eta bildotsa, alferkeriaz geratu denak non gorde ote du lotsa?</b></p>
--	---	---

(2016-01-29)

(2019-01-11)

(2019-01-11)



**Liztorretako askaltegi eta atsedenaldia**



**Astigarragako geltokian, hamaiketako egin ondoren**

**Donostia-Basozabal-Ergobia-Astigarraga-Donostia (2019-01-18)**

Egun hauetan sumatzen dugu  
Kataluinan giro latza,  
elkarrizketa eskasa eta  
bakea honetan datza.  
Marivi zuri opa dizugu  
eguna ederto pasa!  
Topalekuan jarri digute  
tortillan bi kilo gatza.

Atertu gabe urak dihardu  
eguraldi txit iluna,  
baina ausartok ez dugu galdu  
ostiraleko jarduna.  
Baikortasunez onartu behar  
naturak eman diguna,  
horrelakorik egin duenak  
soinean du osasuna.

(2017-10-20)

(2019-01-25)

**Urnieta-Azkorte baseliza-Galarreta-Hernani (2019-01-25)**



**Egun euritsuan edozein magal edo aterpe eskertzen da**

**Hasieran eta bukaeran  
zeruak bota duena!!!,  
blai-blai eginda ez digu utzi  
lehor asko zegoena!!!  
Azkorten, aldiz, ortzi garbia  
Jakin gabe zetorrena,  
tortilla eta sagardo tragoz  
Saretxon bai gozamena!!! (2016-10-11)**



**Azkorteko baselizaren aterpean, taldea abiatzeko prest. Ordurik atsegina hamaiketakoarena, zalantzarik gabe**



**Besabi-Mulisko Gaina-Besabi-Urnieta (2019-02-01)**

**Trikuharriaz eta harrespilaz edo mairu baratzaz aberatsa da alderdi hau**



**Taldea mendi muinoan atsedean labur batean**

**Euria lagun egun osoan  
eta lokatza orpoan,  
leku honetan ikus daiteke  
urki ugari basoan.  
Burdin arotik brontze arora  
ibili gara gaurkoan,  
mairu baratzek, trikuharriek  
iraun dute luzaroan.**

**(2017-12-15)**

**Egun hauetan a zer nolako  
euritearen joera!,  
baina gaurkoan eguraldiak  
egingo digu hobera.  
Mairu baratzak ikusi eta  
egiten dugu galdera,  
Homo Sapiens nola bizi zen  
alde batetik bestera?**

**(2019-02-01)**



**Mulisko Gaina inguratzen eta egunaz gozatzen ibiltariak**

**Donostia-Aiete-Miramón (Erramunene)-Aiete-Donostia (2019-02-08)**



**93+119+20+31=263 eskailera igo behar dira ibilbide honetan zehar**

<p><b>A zer nolako ibilbidea goitik hasiz sakonera!, lokatzez bete oinetakoak eta guztiok berdera. Ez dugu inoiz aurrean izan horrenbeste eskailera, hau ikusita aitzindariak moteldu du ibilera.</b></p>	<p><b>Gurutze bide, kalbarioa egin du ibiltariak, bide labainkor zapaldu arren ez dira izan eroriak. Indar berriak eman dizkigu hartutako edariak, halako goizak izaten dira benetako opariak.</b></p>
---	--

**Hondarribia-Higer itsasargia-Eihera-Higer-Hondarribia (2019-02-15)**

<p><b>Ekimen honek egin duena jende guztia elkartu, horrez gainera denok alaiak inor ez baita aspertu. Hondarribiko itsasargia ondoan zaigu agertu, hamaiketako gustukoenak eguna digu edertu. (2016-06-24)</b></p>	<p><b>Hondarribiko itsasertzean jendea gustura oinez, harkaitzen kontra uhinen aparra biziki ederra zinez. Giro ederrak beteko ditu bazterrak gibeldurdinez, Karmen nafarrak poltsa beterik mesedez ez jarri minez! (2017-10-06)</b></p>
<p><b>Helduen Hitzak berak bakarrik eraso du autobusa, berrogeita bost lagunek dute bete zegoena hutsa. Beste jendeak hemen sartzeko egin behar zuen bultza, bertan zetozen japoniarrek eskatu zuten laguntza. (2019-02-15)</b></p>	<p><b>Jaizkibeleko alderdi honek alaitzen ditu tristeak, politik eta eder baitira bertako itsasarteak. Hementxe bertan eten daitezke suminduraren kateak, gure barneko narotasuna ekartzen baitu bakeak. (2019-02-15)</b></p>



**Pinuditik ateratako argazkia. Hemen nahasten dira itsasoa eta basoa**





**Atsedenaldian, jendea gustura eserita eta otordua hartzen**



**Jendea eguzkitan eta hamaiketako laburra egiten**

**Igeldo-Kukuharri-Igeldo (2019-02-22)**

**Eguraldiak engainatzeko  
badu bere martingala,  
joatekoan egoki eta  
itzultzekoan petrala.  
Euri jasa hark jarri gintuen  
mela-mela berehala,  
eskerrak hemen andre-gizonok  
espartanoak gerala.**

(2015-04-17)

**Eremu zabal honetan daude  
zuhaitzak erdi erreak,  
maltzurkeriak ez du itzali  
naturaren botereak.  
Kukuharritik bista ederrak  
horixe dio jendeak,  
jaistean ia bota gintuen  
errepidetik haizeak.**

(2017-01-13)

**Bost mila urte igaro dira  
hor diraute tumuluak,  
garai hartako artzainek nola  
pasa zituzten neguak?  
Tontortxikiko aztarna hauek  
badituzte sekretuak,  
borondateaz saiatu arren  
ez ditu argitu maisuak.**

(2019-02-22)

**Eguzkiaren berotasunak  
erakartzen du jendea,  
indarberrituz etortzen baita  
eta piztuz umorea.  
Egun hauetan ibiltariok  
bazterturik edadea,  
arin-arinak, gazte bagina  
osatzen dugu bidea.**

(2019-02-22)



**Kukuharriko gurutzearen aurrean talde osoa**



**Tontortxikiko tumuluen aurreko Erramuntxoren azalpenak**